

BALEIKEREN OHARRA 12 SALAKETEN HARIRA

"2017 urtearen erdialdean 12 salaketa izateak, eta salaketak direla azpimarratzea garrantzitsua deritzogu eraso ugari ez direlako tamalez salaketa fasera heltzen, oso egoera kezkarria iruditzen zaigu. Instituzio eta politika mailan bakarrik ez, biztanleriaren %50aren kontrako biolentziaren egunerokotasun honek gizarte mailan ere erreflexio sakon baten beharra eskatzen du. Guri, politikari bezala, instituzio mailan biolentzia hauen aurkako eta gizarte feminista baten aldeko hausnarketa eta herraminta instituzionalak martxan jarri eta areagotzea dagokigu.

Zoritxarrez, gobernu taldean dauden EAJ eta PSE bipartiduak ez dauka iritzi bera eta horrela demostratzen ari dira. Markatutako egunetan argazkiak atera eta adierazpen xarmantak entzutera ohituta gaude, baina arazo hau ez dago udal gobernuaren lehenetasunen artean, zuzendaritza politikoaren aldetik Berdintasun Batzordearen paralisia eta utzikeria nabarmena bait dira. Hainbat proposamen egin ditugu bai Baleiketik eta baita beste alderdien aldetik ere, mozio edo batzorde barneetan biolentzien aurkako eta berdintasunaren aldeko prozesu eta herramintak garatzeko, baina beti atzeratu edo erantzun nagiak ematen dizkigute.

Baleikereren aldetik berriz salatu nahi dugu, Euskal Herri mailan erreferente izandako udal sail hau eta "Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko plan integral"-a garatu zuena (aintzidaridaria prebentzio, ahalduntze eta harreta protokolo mailan" gaur bigarren mailako bezala tratatzea. 2016ko aurrekontuetan plan hau berritzeko kontratazioa eskatu zen, teknikarien irizpideekin bat eginez, oposizioaren aldetik. Gaur egun kontratazioa burutu gabe dago eta berdintasun teknikariaren txosten eta eskaerak kajoietan gordeta. Adierazpenak ondo daude, baina bitartean indarkeria matxistari aurre egiteko plan integral gabe jarraitzen dugu.

Biolentzia matxisten ardura instituzionala da ere eta ordua da. Erasoen aurrean besoak gurutzaturik gelditzeak konplize egiten gaitu, emakumeen biziak jokoan daude. "